

Zabalik dago epea izena emateko Kirol-hezitzailea aditu titulu berrian

2015/09/28

Irekita dago matrikulazio epea Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eskainiko duen **Kirol-hezitzailea aditu titulu berrian**. Gainera, graduondo horren gaineko **informazio zehatza emateko, bi saio ireki antolatu dira azaroan**; lehena, hilaren 12an, Bilbon egingo da, eta, bigarrena, hilaren 19an, Aretxabaletako campusean. Aditu tituluaren helburua da hezkuntza inklusiboa eta ikuspegi soziala txertatzea kirol esparruan. Eskolak hasiko dira 2016ko urtarrilaren 14an.

Aditu tituluak metodologia dinamikoa eta parte-hartzailea izango du. Batetik, irakasle adituek eskola teoriko-praktikoak emango dituzte. Bestetik, eskoletan landutakoa osatzeko, eskola-kirolean zein gorputz-hezkuntzan arituak eta adituak diren pertsonen eta taldeen ekarpenak izango dira, bertatik bertara. Halaber, erakunde batzuetara bisitak ere izango dira. Gainera, kurtsoan zehar, gogoeta- eta eztabaida-mintegiak egingo dira.

Ikasle guztiek, banaka edo taldetan, Aditu titulu Bukaera Lana egin beharko dute eta, kurtso bukaeran berri aurkeztu; proiektu hori aurrera eramateko ikasleek izango dute tutore baten laguntza. Gainera, ikasleek aukera izango dute praktikak egiteko kirol-erakunde batean. Hala nahi izanez gero, nor bere lantokian praktikak egitea posible izango da.

Behin kurtsoa eginda, bi funtzio nagusi beteko ditu aditu tituluaren profesionalak: **hezitzailea eta aholkularia**. Kirola ardatza izanik, jarduera hezitzaileak garatzeko proposamen eta proiektuen diseinua, garapena eta ebaluazioa egin ahal izango ditu. Gainera, kirol-hezitzaileak gauzatu ahal izango ditu erakunde edo talde batean aholkularitzarako jarduerak, betiere, erakundean txertatuz hezkuntza inklusiboaren eta ikuspegi sozialen balioak.

Informazio gehiagorako:

- **Aditu tituluaren gaineko informazio guztia:** www.mondragon.edu/profesionalak.
- **Azaroan egingo diren informazio saioetan izena emateko:** [informazio saioak](#), izen emate orria.



2016ko urtarrilean hasiko da Kirol-hezitzailea aditu tituluak.